

Barrenetxeak Urrezko Erremontea, urteko erremontistarik onenaren saria irabazi du

Banakako bi txapelketetan nagusi izan da, Binakakoan azpitxapeldun eta A multzoko sari nagusia ere irabazi du atzelari hernaniarrak ez ahazteko moduko denboraldi batean.

HERNANI ERREMONTA

Galarretan egun haundia bizi izan zuten atzo Erremontearen Eguren ospakizunekin. Bertan protagonista nagusia Endika Barrenetxea atzelari hernaniarra izan zen, etxera bi sari potoloenak eraman eta gero. 2020 Urrezko Erremontea saria berea du jada eta A multzoko pelotari onenaren saria ere irabazi zituen atzo Galarretan. Merzimuendu osoz gainera, ahaztu ezinako denboraldia osatu baitu hernaniarrak.

Javier Urrizak azken zazpi urteetan eraman zuen Urrezko Erremontea, 2014an, koadroko erremontista guztiakin partekatua, eta beraz esan daiteke

Barrenetxeak irabazten duen bigarren aldia dela. Urrezko Erremontea lortu du banakako bi txapelketak irabazi eta gero: irailean dagoen garrantzitsua Kutxabank Txapelketa Nagusia eta urtarrilean Masterra; Binakako Orona fundazioa Txapelketa finalera iritsi zen; baita San Fermín Torneoan ere. Gainera, A multzoan garaipen portzentai haundiena lortu duena izan da. Argumentuak soberan izan ditu saria irabazteko.

Iñaki Perurenak ere saria, bere ibilbideagatik

Urrezko Erremontea Gotzon Huegun eskultorearen lana da eta Iñaki Perurena harrijasotzaileak ere eraman zuen bere



Xabi Gonzalez, Barrenetxea, Iñaki Perurena, Aldabe eta Onintza Enbeita.

lan bat sari bezala bere kirol ibilbide oparoangatik. Azkenik, B multzoko saria Aldabe aurrelariarentzat izan zen eta eguneko estelarrean bikoteak, Urriza

eta Barrenetxeak, 35-40 galdu zuten Juanenea, Ezkurra II eta Ionek osatzen zuten hirukotearen kontra. Partidu polita ikusi zen. **K**

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna berotzeko hainbat ekintza egingo dira aurretik

Martxoaren 8a datorren igandean da, gaur zortzi, eta gaur Ereñotzun 'Mustang' pelikula eskainiko dute Ludotekan 17:00etatik aurrera.

URUMEA BERDINTASUNA

Emakume Langilearen Nazioarteko egunarentzako aste-bete geratzen da eta egun horretarako eta berotzen joateko hainbat ekitaldi antolatuko dira bailara osoan zehar. Hasteko, gaur Ereñotzun Mustang pelikula eskainiko dute Ludotekan, 17:00etan, Katiluzar Guraso Elkarteak antolatuta. Etzarako, martxoak 3, hitzaldia ere egingo da Ereñotzuko eskolan,

16:30etan. *Seme-alaben sexu hezkuntza segurtasunez esku-hartzeko irizpideak* du izenburua. Ostegun eta ostiralean eskolara joango dira gurasoak, geletara, brotze moreak egitera ikasleekin.

Eta martxoaren 8an, Ola Auzo elkarteak, antolatuta, 17:30etan, *Amak* musika emanaldia eskainiko da frontoian.

Hernaniko Gaztelekuatan zehar egunero antolatu dituzte ekitaldiak. **K**

EGITARAUA

EREÑOTZU

Gaur

17:00 Mustang filma. Ludotekan

Martxoak 3

16:30 Hitzaldia eskolan.

Martxoak 5-6

Eskolan Brotxe moreak gurasoekin.

Martxoak 8

13:00 Hernaniko manifiarekin bat.

17:30 Amak musika emanaldia frontoian, sarrera doan.

HERNANI

Martxoak 8

13:00 Manifestazioa Plaza Berritik.

Ondoren bazkaria Atsegindegin bakoitzak berea ekarrita.

17:00 autobusean Donostiako manifestaziora.

Martxoak 13

19:00 Una mujer en llamas Biterin.

Martxoak 27

19:00 Zinegoak Biterin.

GAZTELEKUAN

Martxoak 3 Gertuko emakume erreferenteak.

Martxoak 4 Mezu moreak.

Martxoak 5 Betaurreko moreak.

Martxoak 6 Ahal dugu jolasa.

Martxoak 7 Bar bahar filma.



Bazkide kuota bihartik, kobratzen

HERNANI GOIZ EGUZKI

Goiz Eguzki jubilatuen etxeak beren bazkideei jakinarazi nahi die 2020 urteko kuota kobratzen hasiko direla bihartik aurrera. Bazkide kuota 10 eurokoa da, pasa den urtean bezala.

Euskeraz aritzeko zita bihar jarri dute

ASTIGARRAGA GURASOLAGUN

Martxoaren lehenengo zita bihar jarri dute Gurasolagun egitasmoan. 16:30etatik 18:30etara bitartean euskaraz mintzatzeko elkargune irekia egongo da. Doakoa da, eta antolatzaileek adierazi dute berdin duela zein den zure euskera maila.

Euskaraldia etzi aurkeztuko da

ASTIGARRAGA EUSKERA

Martxoaren 3an, etzi, 18:45ean Eskolako Aretoan Astigarragako 2020ko Euskaraldiko aurkezpen ekitaldia ospatuko da. Herriar guztiak ekitaldiarekin batzera deitu ditu Udalak. Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan lelopean aurkeztuko da eta urtean zehar egingo dira ekitaldiak bai Astigarragan eta baita Euskal Herri osoan ere.

Jabetze eskoletan, oraindik plazak

HERNANI UDALA

Jabetze Eskolaren baitan, Aser-tibitatea eta ahalduzkoak tailerren oraindik plazak daude. Lehenengo astelehenean antolatuko da, 17:30etatik 19:30etara. 24 euro balio du izenemateak eta ekainaren 1era arte luzatuko dira tailerrak. Desiraren aukerak zabalduko dituzte, abaniko bat zabaltzen den bezala: energia genitela ezagutu, erotika globalean integratu, norberaren historia pertsonala kontutan hartuz.

**ANTZIOLA**
OKINDEGIA

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

Samitek
Bulego makinaren salmenta eta mantentzeak
samitek@samitek.es
www.samitek.es

TOSHIBA
INFORMATIKA
SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa
Ez galdu paperak

**Funeraria VASCONGADA**
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

GAUR Atzokoaren ildo beretik; goizean hego haizea eta eguerdi parterako fronte bat iritsiko da.
Min.10° / Max.18°

BIHAR Euria denera iritsiko da eta momentu askotan ia etengabe egingo du, bereziki kantauri isurialdean eta bertan litro dezente pilatu litezke. **Min.7° / Max.13°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia Auzo Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gaez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA

GOZUETA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK


Zikuñagako ermitaren proiektua interes publikokotzat izendatua

PSE-EEK herritarrak zoriondu nahi ditu izendapena eskuratzeagatik. «Ezinbestekoa zen pauso hori ermita berreraikitzeke».

HERNANI PSE-EE

Ricardo Crespo udal talde sozialistako bozeramailearen esanetan, «albiste ona da Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Zikuñagako baseliza berreraikitzeke egindako plan bereziaren interes publikoko adierazpena, joan den asteazkenean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena».

Ohar batean, buruzagi sozialistak azaldu du Rafaela Romero sozialistak zuzentzen duen sailak hartutako erabaki hori «ezinbesteko» baldintza zela ermita parrokiak aukeratutako lur urbanizazinean berreraiki ahal izateko. Haren esanetan, «mugikortasun eta Lurralde Antolamendu sailak ulertu du ermita honek betidanik izan duen garrantzia hernaniar gizartearentzat, eta sentsibilitate nahikoa izan du proiektua interes publikokotzat jotzeko, ez baita gurtza leku bat bakarrik, gure herriko gune kultural eta historiko bat berreskuratzea ere bada».



Zikuñagako ermita orain berreraiki daiteke.

Zikuñagako ermita 1529an eraiki zen, eta gurtza eta erromesaldi leku garrantzitsua izan zen Hernanin, Zikuñagako Ama Birjina, Hernaniko patroia, bertan baitzegoen, XIII. mendeko irudi gotikoa. Industria garapenerekin eta Zikuñaga paper-fabrikaren hazkundearekin, ordea, fabrikak ermitaren lursaila bereganatu zuen, hura bota eta berreraikitzeke konpromisoarekin. Horretarako, eraikin erlijiosoa harriz harri desmuntatu zuten, eta paper-fabrikaren instalazioetan gorde dute 1987tik.

«Lehenbailehen eraikuntza lizentzia eman dezala Udalak» Urteetako ahanzturaren ondoren, duela denbora bat, Hernaniko San Joan Bautista parrokiak, Zikuñaga Papelerarekin batera, ermita berreskuratzeke lanak hasi zituen, «Gaur egun bere fruituak ematen ari da, eta,

pausoz pauso, azken helburua lortuko da». Horregatik, Crespok EHBilduren udal gobernari eskatu dio proiektua lege baldintza guztiak betetzen baditu behar den eraikuntza lizentzia eman dezala lehenbailehen lanak hasteko.

Proiektua ez da ermita guztiz berreraikitzea, soilik eraikin honen zatirik nabarmenenak, hala nola fatxada nagusia, oratorio bat eta ospakizun erlijiosoetarako aldea, eta Andola baserriaren inguruko lurretan arkupe bat, Elizak helburu horretarako erosi zituenak.

Azkenik, bozeramaile sozialistak parrokia eta paper-fabrika zoriondu nahi izan ditu izan duen «irmotasunagatik. Haiek lortu dute ermitaren memoria bizirik mantentzea, eta haien lanari esker Zikuñaga auzoaren eta Hernani osoaren desira bati forma eman. **K**

Burgosen aurka ariko da gaur Hernani

HERNANI ERRUGBIA

Ohorezko Mailako errugbilariek UBU-Colina Klinik taldeari egingo diote aurre bihar, 12:15etan, San Amaron. Hernaniarren egoera uste baino zailagoa da, baina ez dituzte galdu lan egiteko gogoia eta indarra, eta gogor borrokatuko dute gaur ere. Bestalde, desgaitasuna duten gazteei zuzendutako topaketa egingo da gaur Landaren, goizeko 11:00etan hasita. Ordu erdi ondoren hasiko da errugbi saioa eta hirugarren denbora 13:30etan hasiko da. Pikoteoa eta makarroiak izango dituzte aukeran.

064a izan da saritua Patchwork zozketan

HERNANI PATCHWORK

Patchwork lanen erakusketa ostiralean amaitu zen Biterin eta bukatzeko, manta bat zozketatu zuten bertan, errifak erosi dituztenen artean. Zerbaki saritua 064a izan da eta irabazlea antolatzailleekin harremanetan jartzea eskatzen da. Ia urtero antolatzen da bai erakusketa eta baita manta baten zozketa ere.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskola jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IV. urteurrena
Jon Urruzola Etxabe
1997-10-11 / 2016-03-01
Zure irribarrea gure bihotzetan ondo aski gorderik daramagu bertan denbora pasatzen da eriojuen bueltan ta nahiz zu faltan izan azken lau urtetan oraindik zugandik asko dago Elutxetan.
AITA, AMA, UXUE ETA AINHOA
Urrietan, 2020ko martxoaren 1ean

XXIV. URTEURRENA
Joxemari Larretxea Goñi
1996ko otsailaren 29an Habanan deportazioan hil zen, borroka eta bihotza Euskal Herrian zituela.
Asko maite zaitugu.
ZURE FAMILIAK
Hernanin, 2020ko martxoaren 01ean

Kontzentrazioa asteartean, Olano eta beste 11 militanteren auziagatik

Auzitegi Nazionalen deklarazioa hartzerantz deitu zituzten 6 eta beste 6 deituak daude astearteko. Kontzentrazioa Plaza Berrin egingo da, 19:30etan.

HERNANI GAIA

Ezker abertzaleko sei militanteri deklarazioa hartu zieten lehengo astean Auzitegi Nazionalen eta beste sei kide deituak daude datorren asteartean deklaratzeko, horien artean Juan Mari Olano herrikidea. «Auziak helburu garbi bat du: independentismoak Estatuan ahalbidetu duen agertoki berriak zabal dezakeen edozein

aukera zapuztea. Urtarrilaren 20an, ezker abertzaleko lau kide atxilotu zizutenean, esan genuen operazio horren guztiaren atzean Estatu Sakona zegoela, eskuin-mutur polizial, judizial eta mediatikoa» dio hernaniar talde batek ohar batean.

«Gertatzen ari dena ez da kasualitatea. Inoiz baino adostasun zabalena dago euskal gizartearen espere-politika aldatzearen alde. Atxilotetek eta

zitazioek ez diote logika judizial bati erantzuten: Euskal Herriko eta Kataluniako independentismoak ahalbidetu duten egoera berriari erantzuten diote. Estatu Sakona modu iraunkorren saiatzen ari da edozein aukera-leiho zapuztu asmoz. Estatu Sakon horrek ez du nahi gatazkaren ondorioen nahiz zergatien alorrean aurrera pausorik eman dadin» azaldu dute prentsa oharrean.

Beraz, auzi hau salatzeke, etzi asteartean, martxoak 3, kontzentrazioa deitu du herritar talde honek 19:30etan Plaza Berrin. **K**

IRAGARKI MERKEAK

Astigarragako sagardotegi batean kamarer@ baten bila gabilta. Urte osoko lana.
Email: landepartamendua@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

DOBERAK BEGIRALEA BEHAR DU eguerditan gazteekin aritzeko
Bidali zure Curriculum Vitae-a, **martxoaren 4a** baino lehen:
dobera@dobera.eus
DOBERA EUSKARA ELKARTEA
Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behe 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:
- Euskara ondo menperatzea
- Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlazionatutako formazioa
- Haur eta gazteekin esperientzia

BALORATUKO DA:
- Doberako bazkide izatea
- Hernaniarra izatea

ESKAINIKO ZAIJO:
- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak
- Kontratu formalak

Baldintzak betetzen dituztenen artean aukeratzekak egin eta bati aukeratuko da